



ONGI ETORRI AUZORA!

Harrera-gida

Behin behineko bertsioa



**Larreaundi
Olaberria**
AUZO ELKARTEA

ONGI ETORRI AUZORA!

Ongi etorri auzora! Etorri berria zara? Edo agian urte batzuk daramatzazu hemen? Edo betidanik auzokoa zara? Kasu guztietan, liburuxka hau zuretzat da. "Ongi etorri auzora" proiektuaren baitan sortu dugu, auzoaren memoria kolektiboa eraikitzeko eta komunitate interkulturala indartzeko asmoz.

Larreaundi langile auzo bat da, beti izan da. 60. eta 70. hamarkadetan Extremadura, Galiza edota Gaztelatik etorritako langileek eraiki zuten auzoaren nortasuna, Euskal Herrikoekin batera. Gaur egun, Afrika, Europa ekialdea edota Amerikatik etorritako langileek dira gure auzo-nortasun anitza eraikitzen jarraitzen dutenak. Hori da Larreaundi: belaunaldiz belaunaldi, etorri berriek eta bertakoek elkarrekin egindako auzoa.

Auzo anitza, inklusiboa eta solidarioa nahi dugu, eta horregatik ezinbestekoa da kulturartekotasuna hizpide izatea eta arrazismoaren aurka argi eta garbi kokatzea. Gainera, auzo bizia izateko, elkarlanean eta auzolanean gure komunitatea eraiki behar dugu.

Horregatik sortu dugu gida hau: gure auzoa aurkeztu nahi dizugu, eta denbora gehiago daramagunoi gogorarazi, urte hauetan guztietan sortu, lortu eta gozatu den guztia. Elkarteak, zerbitzuak, leku esanguratsuak, kultura... denetarik! Auzoa denon artean egiten dugu, eta zure ekarpena, iritzia eta parte-hartzea ezinbestekoak dira.



01

ELKARTEAK

LARREAUNDI-OLABERRIA AUZO ELKARTEA

Kontaktua: avvlarreaundi@gmail.com

Ordutegia: Astearte eta ostegunak, 10:30-12:00

Aurkezpena: Auzo elkarteak auzoaren dinamizazioa eta komunitatea indartzea du helburu. Bertan antolatzen dira auzoko jaiak, kultur ekintzak, harrera-ekintzak eta komunitate proiektuak, hala nola "Ongi etorri auzora" proiektua. Auzokide guztientzako topagunea da, eta partaidetza irekia du. Bazkide izan nahi baduzu, pase zaitez elkartetik eta izena eman besterik ez duzu.

Gainera auzo-elkarteak kirol eta aisialdi eskaintza eskaintzen du:

<https://larreaundiolaberria.org/ikastaroak-eta-jarduerak/>

LOS PEROLAS ELKARTEA

Kontaktua:

Aurkezpena: Elkarte gastronomikoa da, auzoko topagune eta elkarrekintza espazio gisa funtzionatzen duena. Kultura eta sukaldaritza uztartzen ditu, eta bazkide eta lagunarteko afarietarako erabiltzen da.

GURASO ELKARTEAK

Kontaktua:

Aurkezpena: Auzoko eskoletako ikasleen gurasoen elkarteak dira. Eskolaz kanpoko ekintzez eta eskolako jaiaz arduratzen dira, eta auzoko jaietan ere laguntzen dute. Hezkuntza komunitatearen parte aktiboa dira.

Ongi etorri auzora!
Harrera gida



02

ZERBITZU PUBLIKOAK

Auzoan kokatutako ikastetxeak

- Eguzkitza HH eta LH Hezkuntza Zentroa - Haur eta Lehen Hezkuntzako eskola publikoa.
- Eguzkitza DBH Hezkuntza Zentroa - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutua.
- CEPA Bidasoaldea - Helduen hezkuntzarako zentroa.

Gizarte zerbitzuak

- Zubia Inklusio Zentroa - Kale egoeran dauden pertsonentzako arreta eta zerbitzuak
- Ama Xantalen Zaharren Egoitza - Adinekoentzako egoitza-zerbitzua.
- Etxeko laguntza zerbitzua.

Osasun zentroak eta farmazia

- Bidasoaldeko ospitala / Hospital del Bidasoa - 943 00 77 00
- Dunboako anbulategia / Ambulatorio de Dumboa - 943 006 787
- Erdialdeko anbulategia / Ambulatorio del centro - 943 006 700
- Auzoko farmazia



04

AISIALDIA, KULTURA ETA KIROLA

Auzoak kultur eta aisialdi aukerak eskaintzen ditu, adin guztietarako:

Euskara

- AEK eta auzo-elkartea: euskara klaseak

Musika, dantza eta sorkuntza

- Marte Sorkuntza Laborategia - Auzoko sorkuntza eta arte espazioa.
- Taupa musika - Haurrentzako musika eskola
- Skola Musika - Musika eskola.
- Pausoka Dance - Dantza eskola.

Auzoko kirol elkarteak

- Lekaenea mahai tenisa - Auzoko mahai tenis taldea.
- Dunboa futbol taldea - Futbol taldea.
- San Marcial futbol taldea - Futbol taldea.
- *Boxeoa* -
- *Fylab* - Gimnasioa eta fisioterapia zerbitzuak
- *Olaketa* - Gimnasioa eta judo



05

AUZOKO LEKU ESANGURATSUAK

Auzoak hainbat espazio publiko ditu elkartzeko, jolasteko eta egoteko:

- Iñigo de Loiola kalea - Auzoko alde zaharra
- Eguzkitza HH-LH zentroko patio-parkea - Eskolako ordutegiz kanpo erabil daitekeen espazioa.
- Roberto eta Miguel auzogileak plazatxoa - Auzoko bizilagunen topagune eta ekitaldietarako espazioa.
- Gain Gainean parkea - Auzoko parke nagusia, jolasteko eta aisialdirako espazio irekia.
- Partxis parkea
- Frontoia - Pilotarako eta beste kirol batzuetarako espazio irekia
- Baratza komunitarioa - Frontoia-aren ondoan kokauta
- San Jose Obreroko futbol zelaia - Futbolerako eremu irekia.
- Calistenia parkea - Kaleko gimnasioa, gorputz-pisuko ariketetarako egokitua.



06

URTEKO JARDUEREN EGUTEGIA

Urtean zehar hainbat ekitaldi eta jai egoten dira auzoan eta hirian, komunitatearen bizitza markatzen dutenak. Hauek dira esaguratsuenak:

- Larrendiko jaiak - Maiatzak 1ren inguruko datetan
Auzoko jai nagusiak, musika, janari, jolas eta komunitate ekintzekin. Urtero antolatzen dira auzo elkartearen eta eragileen bidez.
- Kulturartekotasunaren festibala - Urrian
Auzoaren aniztasuna ospatzeko eta bizilagunen arteko harremanak sustatzeko jaialdia. Kulturarteko elkar-ulertzea eta inklusibitatea ditu oinarri.
- Euskararen eguna - Abenduak 3
- Korriika
Euskal herrian zehar burutzen den euskararen aldeko ekimena da, auzoan ere ospatzen dena.
- Irungo jaiak - Ekainak 30
Hiri mailako jaiak.



07

INFORMAZIO OROKORRA

Udal zerbitzuak

- HAZ (Udaleko Arretarako Zerbitzua) - 943 505 152
- Gizarte zerbitzuak. Arreta primarioa - 943 505 152
- Emakumeen etxea / Casa de la mujer - 943 538 860
- Gaztelekua - 943 505 404
- Kontsumo zerbitzua - 943 505 536

Kultur zerbitzuak

- Irungo Musika eta Dantza Eskola Publikoa - 943 505 710
- CBA Liburutegia - 943 505 421

Irungo kirol zerbitzuak

- Artaleku kiroldegia - 943 505 757
- Azkenportu kiroldegia - 943 505 780

Larrialdiak

- Larrialdietarako zerbitzua - 112



08

ERROLDATZEA

Erroldatzea Irungo Udalean bizilagun gisa izena ematea da. Hainbat eskubide eta zerbitzutara sartzeko aukera ematen dizu. Erroldatzea beharrezkoa da osasun arreta, hezkuntza eta gizarte zerbitzuak jasotzeko. Tramite pertsonala da, beraz inork ezin du zure ordean egin.

Nola egin izapidea?

- Aurrez aurre HAZen (Udaleko Arretarako Zerbitzua), HITZORDUAREKIN. 943 50 51 52 • San Martzial kalea, 2.
- Informazio gehiago nahi baduzu, begiratu HAZren webgunea.

Behar duzun dokumentazioa

- NAN edo NIE / pasaporteak.
- Etxebizitzaren erabilera-eskubidea egiaztatzen duen dokumentua (eskritura, alokairu-kontratua + azken ordainagiria, edo jabe baten baimena).
- Jatorrizko bizilekuaren helbide osoa adierazi. Atzerritik bazatoz, nahikoa da hiria eta herrialdea adieraztea.



09

EGUNEROKO ESALDI BATZUK HIZKUNTZA DESBERDINETAN

Agurtzea

Euskera	Castellano	Français	English	العربية	Română
Kaixol!	¡Hola!	Bonjour !	Hello!	مرحبا!	Salut!
Egun on	Buenos días	Bonjour	Good morning	صباح الخير	Bună dimineața
Arratsalde on	Buenas tardes	Bon après-midi	Good afternoon	مساء الخير	Bună ziua
Gau on	Buenas noches	Bonne nuit	Good night	تصبح على خير	Noapte bună
Zer moduz?	¿Qué tal?	Ça va ?	How are you?	كيف حالك?	Ce faci?
Ondo, eskerrik asko	Bien, gracias	Ça va bien, merci	Fine, thanks	بخير شكرا	Bine, mulțumesc
Eskerrik asko	Gracias	Merci	Thank you	شكرا	Mulțumesc
Mesedez	Por favor	S'il vous plaît	Please	من فضلك	Vă rog
Ez horregatik	De nada	De rien	You're welcome	عفوا	Cu plăcere
Barkatu	Perdón / Lo siento	Pardon / Désolé	Sorry	آسف	Iartă-mă
Gero arte	Hasta luego	À plus tard	See you later	مع السلامة	Pe curând



09

EGUNEROKO ESALDI BATZUK HIZKUNTZA DESBERDINETAN

Ezagutzea eta harremanak

Euskera	Castellano	Français	English	العربية	Română
Pozten naiz zu ezagutzeaz	Encantado/a de conocerte	Enchanté(e)	Nice to meet you	تشرفت بمقابلتك !	Încântat(ă)
Nola deitzen zara?	¿Cómo te llamas?	Comment tu t'appelles ?	What's your name?	ما اسمك ?	Cum te cheamă?
Nire izena ... da	Me llamo...	Je m'appelle...	My name is...	اسمي ...	Mă numesc...
Larraundin bizi naiz	Vivo en Larraundi	J'habite à Larraundi	I live in Larraundi	أسكن في لارياوندي	Locuiesc în Larraundi
Ongi etorri auzora	Bienvenido/a al barrio	Bienvenue dans le quartier	Welcome to the neighborhood	أهلاً بك في الحي	Bine ai venit în cartier

Ongi etorri auzora!
Harrera gida

